

ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO OINARRIAK- PROGRAMAZIO LABURRA			
<b>Irakaslea:</b>	Mikel Olló Uhalte		<b>Ikasturtea:</b> 2018-19
<b>Maila:</b>	2. Batx.	<b>Saioak asteko:</b> 4	<b>Ikasgai mota:</b> Hautazkoa
<b>HELBURU OROKORRAK, EDUKIAK</b>			
25/2015Foru Dekretua, apirilaren 22koa (70 zk.ko NAO, ekainaren 6koa).			
<b>EDUKIEN DENBORALIZAZIOA:</b>			
<b>1. Ebaluazioa</b>	<b>2. Ebaluazioa</b>	<b>3. ebaluazioa</b>	
<b>1.- IDEIA, EKINTZAILEA ETA NEGOZIO PLANA</b>  <b>2.- ENPRESAREN BARNE-ANTOLAKETA. FORMA JURIDIKOA ETA BALIABIDEAK</b>	<b>3.- ENPRESA ABIAN JARTZEKO DOKUMENTAZIOA ETA TRAMITEAK</b>  <b>4.- HORNIKUNTZA PLANA</b>  <b>5.- MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINARENA ENPRESAN</b>	<b>6.- ENPRESAKO KONTABILITATEAREN KUDEAKETA</b>  <b>7.- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA</b>	
<b>METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK:</b>			
<b>•Baliabideak:</b> - <b>Testuliburua:</b> Irakasleak egindako apunteak. - Irakasleak prestatutako material osagarria. <b>•Metodologia:</b> gaitegiaren irakurketa eta edukiaren lanketa ariketa eta proiektuaren bide ezberdinen bidez			

<b>EBALUAZIOA ETA BERRESKURAPENAK</b>
25/2015Foru Dekretua, apirilaren 22koa (70 zk.ko NAO, ekainaren 6koa).
<b>KALIFIKAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA:</b>
<b>KALIFIKAZIO PROZEDURA</b> Kalifikazio tresnak honakoak izanen dira: irakasleak egindako ikaslearen klaseko etengabeko behaketa, etxerako lan zein froga txikiak eta azterketak. Ebaluazio bakoitzak ebaluazio-azterketa bat izango du gutxienez. Gainera kontrol edo/eta lan desberdinak eta materiaren gaintzea errazten duten jarduerak egingo dira. Materiaren ezaugarriak direla eta, ohikoak izango dira kontzeptuei eta definizioei buruzko galdera motzak, galdera luzeak, test motako galderak eta edukietan oinarritutako prozesu matematikoa, zein ezagutza teoriko praktikoak eskatzen dituzten ariketak.
Jarrera ebaluatuko da, hots, euskararen erabilera, errespetua (ikasleekiko zein irakaslearekiko), parte hartzea, klasera garaiz etortzea, etxerako lanak egitea, jarrera aktiboa izatea ikasgelan, eztabaidetan parte hartzea eta galdera egokiak proposatzea. Hauetako edozein aldagai ez beteta eta irakasleak larritzat kontsideratuz gero, negatibo batekin zigortuko du ikaslea eta erdiarekin larria ez dela ulertzen badu. Aldi berean mugikorraren erabilera zigortua izanen da. Ebaluaketa batean 4 negatibo lortzen badira, zuzenean suspenditu egingo du ikasleak ebaluaketa.
Aldi berean positiboak ere lor daitezke. Positibo bakoitzak ebaluaketako notan +0,25eko eragina izango du ebaluaketako notan. Hauek lortzeko, irakasleak alde aurretik abisatuko du, eta orokorrean gaiaren

sakoneko ezagutza eskatzen duen galdera erantzutean lortuko da, edota estrako lanak egitean. Edonola ere, ikaslearen bi negatibok positibo bat efekturik gabe utziko du.

Setik gorako ebaluaketako notak 0,5 etik gora biribilduko dira (adibidez 6,5=7 baina 6,4=6) ikasleak gehienez ere bi negatibo baldin baditu. Hamartarren zehaztapena ikasturte osoan zehar aplikatuko da.

Nota igotzeko aukerarik ez da egongo.

### **KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

#### **EBALUAZIOKO AZKEN NOTA:**

JARRERA	LANAK ETA FROGAK	ENPRESA PROIEKTUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errespetua</li> <li>• Klaseko jarrera</li> <li>• Puntualtasuna</li> <li>• Klasera etortzeak</li> <li>• Parte-hartzea</li> <li>• Gelan euskara erabiltzea</li> <li>• Sormena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Klasean planteatutako ariketak borondatea erakutsiz egitea.</li> <li>• Lan eta ariketak eskatutako egunean entregatzea eta eskatutako baldintzetan.</li> <li>• Frogak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa proiektuaren garapena eta lanketa. (%50)</li> <li>• Proiektuaren aurkezpena (%10)</li> </ul>
<b>%10</b>	<b>%30</b>	<b>60%</b>

Akats ortografikoak kontutan hartuko dira enpresa proiektu atalean **-0,1 puntu akats bakoitzarengatik** (Gehienez puntu 1 kendu ahalko da)

#### **ZUZENKETA IRIZPIDEAK:**

**Proiektua:** Eskatutako puntuen garapena modu egokian egitea, gaiarekiko sakontasun maila eta orijinaltasuna hartuko da kontutan.

**Aurkezpena:** Irakasleak proiektuan oinarritutako aurkezpenaren zuzentasuna eta orijinaltasuna hartuko ditu kontutan. Horretaz gain, ikasleek indibidualki irakaslearen galderak erantzun beharko ditu.

**Frogak:** zati teorikoa definizioen bidez edo/eta galdera motzen bitartez galdetuko da. Zati praktikoa klasean landutako ariketen inguruan izanen da eta bertan, emaitzaz gain, prozedura ere kontutan hartuko da.

- Definizioetan, kontzeptuaren zuzentasunaz gain, adierazpen maila eta ortografia ere kontutan hartuko dira.

- Galdera motzetan zuzentasunaz gain, ideiaren sintetizazio maila eta adibideen erabilera hartuko dira aintzat.

- Galdera teoriko praktikoa ez numerikoa eta praktikoa numerikoetan zuzentasunaz gain prozedura hartuko dira aintzat.

\*Etxera bidalitako lanetan edo proiektuan ikasleak lana kopia duela frogatuz gero ebaluaketan 0 bat izango du.

#### **IKASTURTEKO AZKEN NOTA:**

- Kurtsoaren bukaeran ikasleak helburu minimoak lortzen baldin baditu gaituztua izanen du ikasgaia. Horretarako, bukaerako hiru ebaluazioen batazbesteko bat egingo da azken nota kalkulatzeko eta horietako bakoitzean gutxienez hamarretik bost bat lortu beharko du ikasleak.

- Azken nota gora edo behera borobiltzeko, kontutan izango da ikaslearen jarrera eta garapena.

### **BERRESKURAPENAK**

#### **LEHENENGO, BIGARREN ETA HIRUGARREN EBALUAZIOEN BERRESKURAPENA:**

- Irakasleak ebaluaketan landutako gaitegiarekin erlazioa duen lan bat planteatuko dio ikasleari.

-Berreskurapen lana ebaluazioan 5era iritsi ez diren ikasleek egin beharko dute eta honako hau gaituztua gero (5-10 bitarte) 5 bat erdietsiko du ebaluaketan.

#### **IKASTURTE AMAIERAKO BERRESKURAPENA (maiatza):**

-Ebaluazio bat gutxienez suspenditua duen pertsonak egin beharko du. Berreskuratzeko duen ebaluaket/en edukia agertuko da. Gaituztua gero (5-10 bitarte) 5 bat erdietsiko da ebaluaketan.

#### **EKAINEKO EZ-OHIKO EBALUAZIOA:**

- Urtean zehar landutako eduki guztiak hartuko dira kontutan.

- Azterketa hau egin beharko dute maiatzeko berreskurapen azterketan suspenditutako atalean 5a lortu ez duten ikasleek.

-Gaituztua gero (5-10 bitarte) 5 bat izango da kurtsoko nota.